**UDALAREN OSOKO BILKURA**

**2016ko ABENDUAREN 22an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA**

**Elkartutakoak**

**Alkatea**

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak**

Itziar Agirre Berriotxoa , andrea (E.A.J/ P.N.V)
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Oihane Zabaleta Mujika, andrea (E H Bildu)
Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (E H Bildu)
Unai Badiola Urrate jauna ( E H Bildu)
Nerea Altolaguirre Berastegui, andrea (E H Bildu.)
Aitor Otegi Epelde, jauna (EH Bildu)
Fco. Javier Martin Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)
Natividad Nieves Medina andrea (P.S.E.-E.E
Alberto La Rosa Viedma (Irabazi)

**Idazkaria**

María Jose Begiristain Zabalo andrea

Urretxun bi eta hamaseiko abenduaren hogeitabian.

Arratsaldeko zazpiak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veintidos de diciembre de dos mil dieciséis.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

Abierto el acto por la presidencia, se informa que el punto 7. Solicitud presentada por EH Bildu: dedicación parcial remunerada de la oposición, decae del orden del día.

Seguidamente de orden de Alcaldía se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día.

| | |
|---|---|
| 1.- Aldiri kiroldegiko harrera eta Aldiri kiroldegian eta beste udal instalazio batzuetan kirol-jarduerak esleitzeko konteatazio espedientea;baldintza pleguen onespena. | 1.- Expediente de contratación para la adjudicación de los servicios de recepción en el polideportivo Aldiri y actividades deportivas en el polideportivo Aldiri y en otras instalaciones municipales: aprobación pliegos. |
| 2.- Kontu-hartzailetzako urteko txostena | 2.- Informe anual de Intervención. |
| 3.- Hiri Antolamenduko Plan orokorra erredaktatzeko zerbitzu-kontratua finantzatzeko urteanitzeko izaera onartzea.. | 3.- Crédito plurianual destinado a la financiación del contrato de servicios para la redacción del Plan General de Ordenación Urbana. |
| 4.- 2017 Aurrekontua:<br>a) 2017ko aurrekontu orokorra<br>b) 2017 urteko plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda. . | 4.- Presupuesto 2017:<br>a)Presupuesto General 2017<br>b) Plantilla orgánica y relación puestos trabajo año 2017. |
| 5.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa:deuseztasun deklarazioa | 5.- Plan Estratégico Subvenciones: declaración nulidad. |
| 6.- Etikako dokumentua | 6.- Documento ético. |
| 8.- 2016ko azaroaren 25eko Alkatetzaren Ebazpena: berrestea. | 8.- Resolución Alcaldía 25 de noviembre 2016: ratificación.. |
| 9.- 2016ko azaroaren 29ko Alkatetzaren Ebazpena: berrestea | 9.- Resolución Alcaldía 29 de noviembre 2016: ratificación |

**1.- Aldiri kiroldegiko harrera eta Aldiri kiroldegian eta beste udal instalazio batzuetan kirol-jarduerak esleitzeko konteatazio espedientea;baldintza pleguen onespena.**

**1.- Expediente de contratación para la adjudicación de los servicios de recepción en el polideportivo Aldiri y actividades deportivas en el polideportivo Aldiri y en otras instalaciones municipales: aprobación pliegos.**

Aldiri kiroldegiaren harrera-zerbitzuaren eta kiroldegiko eta udalaren beste instalazio batzuetako kirol-jardueren kontratazioa prozedura irekiaren eta izapide arruntaren bidez arautuko duten Administrazio Klausula Berezien Agiriaren eta Baldintza Teknikoen Agiriaren berri eman da.

Alkate jaunak adierazi du udal-igerilekuak kontratazio horretatik kanpo gelditu direla, horixe dela berritasun nagusia, eta eman beharreko zerbitzuen artean kiroldegitik kanpo udalak eska ditzakeen beste kirol-jarduera batzuk txertatu direla.

Ondoren, lizitazioaren prezioa igo egin dela jakinarazi du, aurreko prezioarekin zerbitzuaren kostuak ordaintzea ezinezkoa zela egiaztatu delako. Aurreikusitako epea bi urtekoa da hasieran, eta urtebeteko bi luzapen egin ahal izango dira. Esleitzeko irizpideak ere aldatu dira, eta % 50ean balioetsi dira balioespen-irizpideak eta irizpide objektiboak; balioespen-irizpideen artean, klausula sozialak txertatu dira, kontziliazioko eta berdintasuneko neurriak sustatzeko.

Esleipendunaren lan-betebeharrei dagokienez, alkate jaunak adierazi du, subrogatze-taulaz gain, langile guztiei bermatu beharreko soldata, plusak, antzinatasuna, jardunaldia eta lanerako ezintasun iragankorreko baldintzak ere txertatu direla pleguko baldintzetan; titulartasun publikoko Gipuzkoako instalazioen hitzarmenean jasotakoak dira baldintza horiek.

Baldintza teknikoen agiriari dagokionez, agiri horrek zer zerbitzu eskaini behar diren eta zer lan egin behar diren deskribatzen duela azaldu

Se da cuenta del Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y del Pliego de Prescripciones Técnicas que han de regir la contratación mediante procedimiento abierto, tramitación ordinaria, de los servicios de recepción en el polideportivo Aldiri y de actividades deportivas en el polideportivo Aldiri y en otras instalaciones municipales.

El sr. alcalde expone que las novedades principales son que no se incluyen las piscinas municipales, y se añaden como servicios a prestar actividades deportivas que el ayuntamiento pudiera demandar en otras instalaciones distintas al polideportivo.

Sigue diciendo que, se ha aumentado el precio de licitación, tras haberse comprobado que con el precio anterior no se podían cubrir los costos del servicio. La duración prevista es de dos años iniciales con dos posibles prorrogas anuales. Tambien se han modificado los criterios de adjudicación, valorándose al 50% tanto los valorativos como los objetivos, y dentro de los valorativos se han incluido clausulas sociales dirigidas al fomento de medidas de conciliación e igualdad.

Respecto a las obligaciones laborales del adjudicatario, el sr. alcalde informa que, además de la tabla de subrogación, se ha incluido en el clausulado del pliego el salario, los pluses, la antigüedad, la jornada y las condiciones de incapacidad temporal que hay que garantizar a tod@s l@s trabajador@s, que son los derivados del convenio de instalaciones de titularidad pública de Gipuzkoa.

Por lo que se refiere al pliego ténico, señala que, este describe los servicios y trabajos a

du, eta 2017. urterako aurreikusitako egutegia eta esleipendunak egin beharreko oinarrizko mantentze-lanen eranskina ere jasotzen dituela. Kontratuaren jarraipena egiteko batzorde bat ere eratu da.

Hitz egiteko txandak hasi direnean, Martin jaunak (PSE-EE) adierazi du ados dagoela proposatutako agiriekin, eta eurek ere lanketan parte hartu dutela eta ekarpenak egin dituztela esan du. Kontratuaren jarraipena egiteko batzordera zuzendu du arreta bereziki, eta udalaren kontratazio administratibo guztietan horrelako batzorde bat eratzea arauzkoa izatea nahiko lukeela adierazi du. Azkenik, eskerrak eman dizkie teknikariei, egin duten lanarengatik.

Otegi jaunak (EH Bildu) esan du agirien lehen zirriborroa jaso zutenean langileen lan-baldintzek kezkatu zituztela gehienbat; izan ere, aplikatzen ari den hitzarmena (titulartasun publikoko Gipuzkoako kirol-instalazioak) gainbehera joan da, eta bere proposamenak langile guztiei baldintza horiek bermatzeko helburua zuela adierazi du. Proposatutako agiriak kezka horri erantzuten dio, eta, horregatik, haren aldeko botoa emango dute. Hala ere, adierazi du esleipenak egiteko irizpideetan ausardia falta nabaritu dutela, baina ulertzen dute, bestalde, arlo hori aurrerago ere landu daitekeela.

Alkate jaunak, Otegi jaunaren esku-hartzeari erantzunez, adierazi du kontratatutako zerbitzuaren langile guztiek lan-baldintza berak dituztela. Esleipen-irizpideei dagokienez, udalaren kontratu guztietan klausula sozialak

realizar, contiene el calendario previsto para el 2017, y un anexo de labores de matenimiento básico que serán a cargo del adjudicatario. También se establece una comisión de seguimiento del contrato.

Iniciado el turno de intervenciones, el sr. Martín (PSE-EE), manifiesta estar de acuerdo con los pliegos que se proponen y en los que se ha trabajado y aportado. Señala que quieren incidir, especialmente, en la comisión de seguimiento del contrato, y que les gustaría que, como norma, se incluyera en todas las contrataciones administrativas mujnicipales. Y por último agracede a los técnicos el trabajo realziado.

El sr. Otegi (EH BIldu), dice que cuando recibieron el primer borrador de los pliegos tuvieron como preocupación las condiciones laborales de los trabajadores dado que el convenio que se está aplicando, instalaciones deportivas de titularidad pública de Gipuzkoa, ha decaído, y su propuesta iba en aras de garantizar esas condiciones a tod@s l@s trabajador@s. El pliego propuesto responde a esta inquietud y es por ello que votarán a favor del mismo. No obstante, señala que echan de menos un poco más de atrevimiento en los criterios de adjudicación, pero también entienden que e puede ir trabajando en ello.

El sr. alcalde, recogiendo la intervención del sr. Otegi, reitera que, efectivamente, las condiciones laborales son las mismas para tod@s l@s trabajador@s dell servicio contratado. En cuanto a los criterios de adjudicación, indica que están tratando de

txertatzen saiatzen ari direla jakinarazi du, baina oraindik ez dituztela emaitzak ezagutzen. Azkenik, adierazi du oso garrantzitsua dela kontratuen jarraipena egitea, batzuetan zaila izaten den arren; horregatik sortu dute jarraipen-batzordea, baina, horrez gain, gogorarazi du Bozeramaileen Batzarrean ere aldian-aldian zerbitzuen kontratuak aztertzeko konpromisoa dutela.

Eztabaida amaitu denean, Kontu-hartzailetzak emandako aldeko txostena kontuan hartuta eta gaia bozkatu ondoren, honako erabaki hau hartu da, aho batez:

**Lehena.-** Kontratua prozedura irekiaren eta izapidetze arruntaren bidez esleitzea.

**Bigarrena.-** Aldiri kiroldegiaren harrera-zerbitzuaren eta kiroldegiko eta udalaren beste instalazio batzuetako kirol-jardueren kontratazioa arautuko duten Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea.

**Hirugarrena.-** Gainerako izapideak egitea, dagokion kontratua sinatu arte.

**2.- Kontu-hartzailetzaren urteko txostena.**

Toki Ogasunen Lege Arautzaileari buruzko Testu Bategineko 218. artikuluan ezarritakoa betez, kontu-ikuskatzaileak udalbatzara zuzendu du Kontu-hartzailetzarekin egon daitezkeen desadostasunak ebazteko txostena, 2016ko abenduaren 19ra artekoa:

2016. ekitaldian, ez dira gauzatu organo

incluir una serie de claúsulas sociales en todos los contratos municipales, desconociendo todavía el resultado de las mismas. Y por último señala que, a pesar de parecerle díificil, entiende que es de suma importancia el seguimiento de los contratos, por ello la comisión de seguimiento, pero además recuerda el compromiso que existe de analizar periódicamente en Junta de Postavoces la marcha de los diferentes contratos de servicios.

Finalizado el debate, y considerando el informe favorable emitido por Intervención, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Adjudicar el contrato por el procedimiento abierto, tramitación ordinaria.

**Segundo.-** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que habrán de regir el procedimiento para la adjudicación de la recepción del polideportivo Aldiri y la prestación de actividades deportivas en el polideportivo Aldiri y en otras instalaciones municipales.

**Tercero**.- Cumplir con los demás trámites hasta la formalización del oportuno contrato.

**2.- Informe anual de Intervención.**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 218 del Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, por la Interventora se eleva a Pleno informe de resolución de discrepancias por Intervención, hasta 19 de diciembre de 2016:

A lo largo del presente ejercicio “2016”, no se han dado actos con contenido económico,

eskumendunak onartutako eta kontu-hartzailetzako organoak zehaztutako irizpideetatik bereizitako eduki ekonomikoko ekintzak.

**3.- Hainbat urtetarako kreditua, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuen kontratua finantzatzeko**

Urretxuko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi nahi du. Horretarako, lizitaziorako administrazio-espedientea izapidetuko du, legez dagokion prozeduraren arabera, zerbitzuen kontratu administratiboaren esleipena egiteko. 200.000 €-ko lizitazio-prezioa aurreikusi da, eta bi ekitalditan hainbanatu nahi da, 2017an eta 2018an, hain zuzen.

Kontuan hartu da, batetik, hainbat urtetarako gastu bat onartzeko, berorren kudeaketa abiaraziko den ekitaldiko Aurrekontua egin aurretik erabaki behar dela, agiri horretan kreditua jasota gera dadin eta "Konpromiso-kredituen eranskina" bideratu ahal izan dadin, abenduaren 19ko 21/2013 Foru Arauaren 6.1. e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontuan hartu dira, bestetik, udaleko ikuskatzaileak emandako txostena eta Ogasun eta Kontuen Batzorde Bereziak emandako aldeko irizpena. Horiek guztiak kontuan hartuta, bozkatu egin da gaia, eta honako hau onartu da, aho batez:

**Lehena.-** Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hainbat urtean idazteko aukera onartzea, zeregin horri dagokion gastua ekitaldi

aprobados por órgano competente que se hayan separado del criterio mantenido por el órgano de intervención.

**3.- Crédito plurianual destinado a la financiación del contrato de servicios apra la redacción del Plan General de Ordenación Urbana,**

Por el Ayuntamiento de Urretxu se quiere proceder a la redacción del Plan General de Ordenación Urbana. Para ello se va a a proceder a la tramitación del oportuno expediente administrativo de licitación para la adjudicación, por el procedimiento que legalmente corresponda, del necesario contrato administrativo de servicios, Se prevé un precio de licitación de 200.000 € que se desea prorratear en dos ejercicios, 2017 y 2018.

Considerando que la aprobación del carácter plurianual de un gasto ha de acordarse con carácter previo a la elaboración del Presupuesto del ejercicio en que debe iniciarse la gestión del mismo para que pueda situarse en dicho documento el oportuno crédito y pueda diligenciarse el "Anexo de Créditos de Compromiso", todo ello según dispone el artículo 6.1. e) de la Norma Foral 21/2013, de 19 diciembre.

Considerando el informe emitido por la Interventora municipal y el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda y Especial de Cuentas, y sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el carácter plurianual de la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, por considerar que se trata de un gasto

ekonomiko batera baino gehiagora hedatzen delako eta ezinezkoa delako proiektu partzialetan zatitzea.

**Bigarrena.-** Hainbat urtetako gastua gauzatzeko egutegi hau zehaztea, hasierazko izaeraz eta hasierako kopuru hauekin:

| | |
|---|---|
| 2017 | 100.000 € |
| 2018 | 100.000 € |

**4.- 2017ko Aurrekontua**

**a) 2017ko Aurrekontu Orokorra.**

Alkate jaunak Agirre andreari eman dio hitza, Ogasun eta Kontuen Batzorde Bereziko lehendakariari, eta hark azaldu du aurrekontua prestatzeko prozesua uda ondoren abiarazi zela, mugarrien egutegia aurkeztu zenean; irailean, egutegi hura udal-teknikarien esku jarri zen, beren proposamenak prestatzen has zitezen. Urrian, komunikazio orokorra egin zitzaien herritarrei, proposamenak egin zitzaten. Horrez gain, galdeketa jarri zen web orrian, eta bilerak egin ziren auzoetan. Azaroan, lehen zirriborroa edo 0 zirriborroa prest zegoen, eta azaroaren 14ko batzordean aurkeztu zen; azaroaren 30ean berriro ere aztertu zen gaia batzordean. Oposizioak abenduaren lehenengo astean egin zituen proposamenak, eta, proposamen horiek guztiak batera aztertu ondoren, joan den abenduaren 19an behin betiko proposamena aurkeztu zen batzordean. Zaila zirudien arren, aurreikusitako egutegia bete dela adierazi du, eta eskerrak eman dizkie guztiei, egindako ahaleginagatik.

que se extiende a más de un ejercicio económico y no es susceptible de división en proyectos parciales.

**Segundo.-** Fijar con carácter inicial el siguiente calendario de ejecución del gasto plurianual anteriormente citado y por los siguientes importes iniciales:

| | |
|---|---|
| 2017 | 100.000 € |
| 2018 | 100.000 € |

**4.- Presupuesto 2017.**

**a) Presupuesto General 2017.**

El sr. alcalde da la palabra a la sra. Agirre, presidenta de la Comisión de Hacienda y Especial de Cuentas, quien expone que el proceso de elaboración del presupuesto se inició después del verano con la presentación de un calendario de hitos, calendario que en septiembre se traslada a los técnicos municipales para que vayan preparando sus propuestas. En octubre se realiza una comunicación general a la ciudadanía para que pueda hacer propuestas, además de la encuesta volcada en la web y las diferentes reuniones con los barrios. En noviembre se dispone del primer borrador o borrador 0 que se presentó en comisión el 14 de noviembre, y el 30 de noviembre, se trató nuevamente en comisión. La oposición ha realizado sus propuestas durante la primera semana de diciembre, propuestas que se han analizado conjuntamente, y el 19 de diciembre pasado se presentó la propuesta definitiva en la comisión. Señala que, a pesar de no ser fácil, se ha cumplido el calendario previsto y agradece a tod@s el esfuerzo realizado.

Urretxuko udala

Ondoren, aurrekontua prestatzeko egindako parte-hartze prozesuaren berri eman du, eta webgunean ere inkesta bat egin zela jakinarazi du; ehun pertsona inguruk eskuratu zuten galdeketa, baina 15 pertsonak erantzun zuten soilik. Inkestaren balioespenak jakitera emango dira.

Bestalde, 16 bilera egin dira udalerriko auzoetan, eta, guztira, 165 pertsona inguruk hartu dute parte bilera horietan; gobernu-taldea eta oposizioa ere bileretan izan dira. Bilera horietako parte-hartzea handitu egin da iazko parte-hartzearekin alderatuta, eta esperientzia positibotzat jo du. Bi bilera egin dira auzo bakoitzean: lehenengoan, jendearen ekarpenak jaso ziren eta udal-teknikariei helarazi zitzaizkien; bigarren bileran, egindako ekarpen haiek izandako emaitzen berri eman zitzaien bizilagunei, hau da, ekarpenak aurrekontuan txertatuko ziren ala ez jakinarazi zitzaien; ez txertatzeko arrazoiak ere jakinarazi zizkieten, hots, teknikoki bideragarriak ez zirelako edo une egokia ez zelako. Bilera haien emaitza dokumentu batean jaso da, eta udaleko talde politikoei helarazi zaie dokumentu hori; horrez gain, udalaren webgunean ere argitaratuko da.

Agirre andreak jarraitu du esanez jaso diren proposamenak logikoak izan direla, eta gehienak udalaren aurrekontu berrian txertatu direla, egunez eguneko gai gisa ere bai. Beste proposamen batzuek pisu espezifiko handiagoa dute, eta sail berezia izango dute; beste batzuk, berriz, ezin izango dira gauzatu, finantziazio nahikorik ez dagoelako, baina aurrerago berriro aztertuko dira.

Seguidamente procede a dar cuenta del proceso participativo realizado en la elaboración del presupuesto, e indica qued se realizó una encuesta en la web a la que accedierón un centenar de personas, contestando solamente 15. Las valoraciones de la encuesta se harçan públicas.

Por otra parte se han mantenido 16 reuniones con los distintos barrios del municipio a las que han acudido, alrededor de 165 personas, y en las que han estado presentes el equipo de gobierno y la oposición. Señala que la participación en estas reuniones ha aumentado respecto al año pasado y lo entiende como una experiencia positiva. Se han mantenido dos reuniones con cada barrio, en la primera de las cuales se recogían las aportaciones que han sido trasladadas a los técnicos, y en la segunda reunión se daba traslado del resultado a esas aportaciones realiazadas, en el sentido de si se iban a recoger en el presupuesto, o si no podía ser, bien porque tecnicametne no se consideraban viables, bien porque no era el momento oportuno. El resultado de estas reuniones ha sido recogido en un documento que se ha facilitado a los grupos políticos municipales y será publicado en la web municipal.

La sra. Agirre sigue diciendo que las propuestas que se han ido recogiendo son lógicas y en su mayoría han podido ser insertadas en el nuevo presupuesto municipal, incluso como asuntos del día a día. Algunas otras tendrán su propio peso específico con partida propia, y otras no se podrán ejecutar por falta de financiación suficiente pero se seguirán analizando.

Urretxuko udala

Oposizioak aurkeztutako proposamenei dagokienez, Agirre andreak jakinarazi du EH Bildu eta PSE-EE alderdiek proposamenak aurkeztu dituztela, eta taldeek berek azalduko dituztela; proposamen horietako asko aurrekontuan jaso dira.

Proposatzen den aurrekontuaren edukiari dagokionez, Agirre andreak adierazi du aurrekontuaren zenbatekoa 8.704.806 €-koa dela, eta orekatua dela.

2016ko behin betiko aurrekontuarekin alderatuta, diru-sarrerak % 8,75 txikiagoak dira, honako hiru arrazoi hauengatik, funtsean: 1) 2016ko behin betiko aurrekontuak diruzaintzako soberakin bat, 480.000 €-koa, jasotzen du; 2) 2016. urtean, salbuespenezko gertaera bat izan da, eta hirigintzatik diru-sarrera handiak iritsi dira, 700.000 €-koak; 2017. urterako 200.000 €-ko diru-sarrerak soilik aurreikusi dira; eta 3) tasak eta zergak izoztu egin dira, eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsak ere zuhurtasunez jokatu du aurrekontuetan.

Diru-sarrera nagusiak OHZtik eta Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik iristen dira, eta, hirigintza-jardunengatik aurreikusitako 200.000 €-ak alde batera utzita, Urretxu bere ohiko egoerara itzuliko da 2017. urtean; hau da, diru-sarrerak eta gastuak nahiko parekatuta daude aurten, eta ez dago inbertsio handiak egiteko aukerarik.

Gastuen egoerari dagokionez, irizpide orokorraren arabera, langile-gastuetan % 1eko igoera gertatuko da, eta II. kapituluko gastuak izoztu egingo dira, aurreikusitako KPI zerotik

En cuanto a las propuestas presentadas por la oposición, la sra. Agirre informa que se han presentado propuestas por parte de EH Bildu y el PSE-EE, propuestas que serán expuestas por los propios grupos, muchas de las cuales han tenido su reflejo presupuestario.

Entrando en el contenido del presupuesto que se propone, la sra. Agirre expone que es un presupuesto equilibrado que asciende a 8.704.806 €.

Los ingresos, en relación con el presupuesto definitivo de 2016 son menores en un 8,75%, fundamentalmente por tres razones: 1) en el definitivo de 2016 está incorpoarado un remanente de tesorería de 480.000 €, 2) en el 2016 se ha producido un hecho excepcional de mayores ingresos urbanísticos, 700.000 €, preveyendose para el 2017 solamente 200.000 €, y 3) se han congelado las tasas e impuestos y el FFFM se ha contenido por prudencia presupuestaria.

Los ingresos más importantes provienen del IBI y del FFFM, y a salvo de los ya citados 200.000 € previstos por operaciones urbanísticas, en el ejercicio 2017 se vuelve a la situación habitual en Urretxu, esto es que se dispone de unos ingresos y unos gastos bastante parejos no habiendo posibilidad de gran inversión.

En cuanto al estado de gastos, el criterio general es un aumento del 1% en los gastos de personal, y la congelación de los gastos del capítulo II dado que el IPC que se prevé está

hurbil dagoelako. Bi premisa horietatik abiatuta, udal-teknikariek gastuen ohiko sailak adierazi dituztela esan du, eta sail horiek aurrekontuen % 80 hartzen dutela.

Adierazi du, gastuen egoeraren barnean, ez ditugula ahaztu behar 3. eta 9. kapituluak, maileguen interesei eta amortizazioei dagozkienak, hurrenez hurren. Udalak hiru mailegu-eragiketa zehaztuta dituela gogorarazi du; bata Caja Rural erakundearekin, eta, 2017ko urtarrilaren 1ean ordaintzeke dagoen kapitala 889.800 €-koa da; Kutxabank erakundearekin beste bat, eta, kasu honetan, 2017ko urtarrilaren 1ean ordaintzeke dagoen kapitala 434.600 €-koa da; eta Aquarberekin hirugarrena, eta ordaintzeke dagoen kapitala 158.000 €-koa da 2017ko urtarrilaren 1ean. 2017. urtearen amaierarako zorra 1.000.000 €-ra murriztuko dela aurreikusten da.

Ondoren, aurrekontua arloka aztertu du:

Gobernu-organoa: arduraldi esklusiboko langileen gastuak % 1 handitu dira. Korporazioko kideentzat, talde politikoentzat eta dietetarako bideratutako kopuruei bere horretan eutsi zaie. Bizikidetza-planera bideratutako kopurua murriztu egin da, eta memoria historikoko bekako bideoen edizioa txertatu nahi da plan horretan. Berrikuntza nagusia oposizioko liberatu partzial bati ordaintzeko zuzendutako partida da; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak aukera hori ezartzen du, baina oraindik ez dago argi gauzatuko den ala ez.

Herritarren segurtasuna. Udaltzaingoa. Ibilgailu bat erosi da, hori da berritasun nagusia.

cercano a cero. Dice que, a partir de esas dos premisas, los técnicos municipales han ido reflejando las partidas de gasto habituales que suponen el 80% del presupuesto.

Señala que dentro del estado de gastos, no hay que olvidar los capítulos 3 y 9, intereses y amoritzaciones de préstamos respectivamente. Recuerda que el ayuntamiento tiene concertadas tres operaciones de préstamo, con Caja Rural con un capital pendiente a 1 de enero de 2017 de 889.800 €, con Kutxabank con un capital pendiente a 1 de enero de 2017 de 434.600 €, y con Aquarbe, con un capital pendiente a 1 de enero de 2017 de 158.000 €. Se prevé que para final de 2017 el endeduamiento haya disminuido a 1.000.000 €.

Seguidamente pasa a analizar el presupuesto por áreas:

Organos de gobierno: se incrementa el 1% los gastos destinados al personal con dedicación exclusiva. Se mantiene la cantidad destinada a asistencias de corporativos, asignaciones a grupos políticos y dietas. Se ha reducido la cantidad destinada al plan de convivencia, y en el mismo se pretende dar cabida a la edición de los videos de la beca de memoria histórica. La novedad más importante es la partida destinada a la remuneración de un liberado parcial de la oposición, posibilidad que establece la Ley de Instituciones Locales de Euskadi y que se desconoce si será ejecutada.

Seguridad ciudadana. Policía municipal: La novedad es la adquisición de un vehículo.

Administrazio orokorra: partidak bere horretan gelditu dira, udaletxearen berrikuntza-lanei dagokiena izan ezik, eta partida hori desagertu egin da, jada gauzatu delako; Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko bideratutako partida da berrikuntza nagusia, eta hainbat urtetarako gastua izango da, hots, 2017ko aurrekontuan 100.000 € bideratuko dira zeregin horretarako, eta beste 100.000 € 2018an.

Gizarte-sustapena: orain arte eskaini diren zerbitzu guztiak mantendu dira, hala nola etxez etxeko laguntza, droga-mendekotasunak, gizarte-larrialdiak… Bestalde, 100 €-ko partida ireki bat jaso da Aspacerako, eta diru-sarreren aurrekontuaren % 0,6 garatzen ari diren herrialdeei laguntzeko bideratu da; legealdiaren amaierarako, azken kopuru hori % 0,7koa izatea lortu nahi da. 8.000 € bideratu dira Eguneko Zentroan eta Zahar Etxean egin beharreko inbertsioetarako, eta, PSE-EE alderdiak eskatuta, 4.500 € bideratu dira gizarte-zerbitzuen gida bat prestatzeko. Berdintasun-arlora zuzendutako kopurua ere handitu da, eta Xera saria berregiteko asmoa adierazi da; bestalde, udalean egiten dugun guztiak genero-ikuspegia kontuan hartzen duen ezagutzeko nahia ere adierazi da.

Hezkuntza: ohiko partidak mantendu dira, eta institutura doan autobusa finantzatzeko partida da berrikuntza nagusia.

Sustapen soziokulturala: jarduera eta zerbitzu guztiak mantendu dira, kiroldegiaren kontraturako izendapena onartutako lizitazio-prezio berriaren arabera handitu da,

Administración general: se mantienen las partidas con la excepción de la reforma del ayuntamiento que desaparece por estar ya ejecutada, y la novedad es la partida destinada a la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, que se introduce con carácter plurianual, con 100.000 € en el presente presupuesto para 2017 y 100.000 € para el ejercicio 2018.

Promoción social: se han mantenido todos los servicios que se vienen prestando hasta ahora tales como ayuda domiciliaria, drogodependencias, emergencia social… También se ha recogido una partida abierta de 100 € para Aspace, y se ha destinado el 0,6% del presupuesto de ingresos para la ayuda a los países en vías de desarrollo, siendo el objetivo que para fin de legislatura se pueda llegar al 0,7%. Se destinan 8.000 € para invesiones en el Centro de Día-Hogar Jubilado y, a solicitud del PSE-EE, 4.500 € para elaborar una guía de servicios sociales. También se ha incrementado la cantidad destinada a igualdad teniendo el ánimo de reconvertir el premio Xera, y por otra parte para conocer si todo, lo que hacemos a nivel municipal tiene perspectiva de género.

Educación: se mantienen las partidas habituales, y la novedad es la partida destinada a financiar el bus al Instituto.

Promoción sociocultural: se mantienen todas las actividades y servicios, se aumenta la consignación destinada al contrato del polideportivo de acuerdo al nuevo precio de

senidetzera bideratutako partida murriztu da eta garapen sozioekonomikorako ekintza baterako bideratu da partida hori. Kiroletan, 23.000 € gehitu dira pilotalekuko inbertsioetarako, zehazki, aldageletako sarbidea hobetzeko.

Parte-hartzea: udalaren webgunerako izendapena murriztu da, hemendik aurrera mantentze-lana egin beharko baita soilik. Irimo Berrikuntza zeritzona Irimo Musika izango da, eta musika-taldeek entseguak egiteko lokalak egokitzeko bideratuko da.

Landa-garapena: landa-bideetara zuzendutako kopurua murriztu da, garrantzitsuenak gauzatu direlako. Partida txiki bat jaso da, lursailen bat erosteko aukera sortzen bada, lursail hori erosteko.

Zerbitzu ekonomikoak: bere horretan mantendu da, eta urteko ikuskaritza finkatu da. Gainera, Urola Garaia Mankomunitatera zuzendutako kopurua 20.000 €-tan emendatu da, Ugassa garapen-agentziaren bidez sustapen sozioekonomikorako erabiltzeko.

Hirigintza, lanak eta zerbitzuak: zerbitzuen eta mantentze-lanen kontratu gehienak biltzen ditu arlo honek, inbertsioez gain. Inbertsioei dagokienez, Agirre andreak azaldu du 450.000 € bideratu direla guztira. Ondoren, esan du urte askoan ezin izan dela inbertsiorik egin, udalaren egoera ekonomiko zailaren ondorioz, eta, orain, bidean egin gabe gelditu diren gauza guztiak egiten joan behar dugula eta

licitación aprobado, se disminuye la partida destinada al hermanamiento y el objetivo de la misma es alguna acción encaminada al desarrollo socioeconómico. En deportes se incluyen 23.000 € para inversiones en el frontón, en concreto para mejorar la accesibilidad de los vestuarios.

Participación: se disminuye la consignación destinada a la web municipal, porque a partir de ahora se tratará solamente de mantener la misma. Lo que se ha denominado Irimo Innovación será Irimo música y se destinará a la habilitación de los locales de ensayo para grupos musicales.

Desarrollo rural: disminuye la cantidad destianda a caminos rurales porque ya se han ejecutado los más importantes. Se ha recogido una pequeña partida por si hubiera posibilidad de adquirir algún terreno.

Servicios económicos: se mantiene igual afianzando la auditoría anual. Además se ha incrementado en 20.000 € la cantidad destinada a la Mancomunidad Urola Garaia, con elo objeto de destinarla a la agencia de desarrollo Uggasa para el fomento socioeconómico.

Urbanismo, Obras y Servicios: es el área que recoge prácticamente todos los contratos de servicios y mantenimientos, además de las inversiones. En relación a éstas, la sra. Agirre expone que se destinan un total de 450.000 €. Sigue diciendo que durante muchoa años no se han podido acometer inversiones por la difícil situación económica del ayuntamiento, y ahora hay que ir acometiendo todo lo acumulado, por

guztiok buruan ditugun zenbait proiektu ezin izango direla aurrera eraman. Hori esanda, 2017ko aurrekontuan proposatzen diren inbertsioak zerrendatu ditu:

❖ Auzoetan egin beharreko lanak: 33.000 €; horietatik, 25.000 € Aparizio auzoko fatxadetarako diru-laguntzak emateko bideratuko dira.
❖ Plaza estaltzea: 100.000 €. Plaza estaltzeko lanak udaberrian abiarazi nahi dira.
❖ Igerilekuko lanak: 1.000 €. Une honetan, udalak ez du gaitasun ekonomikorik igerileku berri bat egiteko, eta, gai hau Foru Aldundiak kirol-ekipamenduen programaren barnean eman dezakeen diru-laguntzaren mende dagoenez, aurrekontuan kontuan izan da, baina kopuru sinboliko bat bideratu da, eta udalak zer igerileku edo zer lan egin nahi duen edo egin dezakeen erabakitzen duenean doituko da kopuru hori.
❖
❖ Udalaren ibilgailua: 25.000 €
❖ Eguneko Zentroan inbertsioak: 8.000 €
❖ Aspace: 1.000 €
❖ Juan de Lizarazu–Labeaga aretoko hobekuntza-lanak: 3.000 €
❖ Pilotalekuko inbertsioak (irisgarritasuna eta aldagelak): 33.000 €
❖ Kiroldegian egin beharreko inbertsioak: 1.500 €
❖ Aterpetxeko altzariak: 700 €
❖ Gaztebidean inbertsioak: 3.000 €
❖ Irimo Musika Berrikuntza: 20.000 €
❖ Landa-bideak: 20.000 €
❖ Baserrietako seinalizazioa: 1.000 €
❖ Landa-sailak erostea: 1.000 €
❖ Sta Barbara auzoko irisgarritasuna: 1.000 €

lo que algunos proyectos que tod@s podemos tener en mente no se pueden llevar a acabo. Seguidamente pasa a dar cuenta de las inversiones que se proponen en este presupuesto 2017:

❖ Obras en barrios: 33.0000 €, de los cuales 25.000 € irán destinados a subvencionar las fachadas de Aparicio auzoa.

❖ Cubrición plaza: 100.000 €. La intención es proceder a la cubrición en primavera.

❖ Obra piscina: 1.000 €. En este momento el ayuntamiento no tiene capacidad económica para una nueva piscina, y dado que el asunto depende de la posible subvención de Diputación Foral en el programa de equipamiento deportivos, se ha tenido en cuenta en el prespuesto con una cantidad simbólica que deberá adecuarse a la decisión que adopte el ayuntamiento sobre qué tipo de piscina o de obra se quiere o se puede ejecutar.
❖ Vehículo municipales: 25.000 €
❖ Inversiones Centro Dia: 8.000 €
❖ Aspace: 1.000 €
❖ Mejoras Juan Lizarazu-Labeaga aretoa: 3.000 €
❖ Inversiones frontón (accesibilidad vestuarios): 33.000 €
❖ Inversiones polideportivo: 1.500 €

❖ Mobilairio albergue: 700 €
❖ Inversiones Gaztebidean: 3.000 €
❖ Irimo Musika Berrikuntza: 20.000 €
❖ Caminos rurales: 20.000 €
❖ Señalización caserío: 1.000 €
❖ Adquisición terrenos rusticos: 1.000 €
❖ Accesibilidad Grupo Sta Barbara: 1.000 €

- Saneamendu-sarea konpontzea: 15.000 €
- Pagoeta parkea: 10.000 €
- Bide publikoak asfaltatzea: 20.000 €
- Kaleko argindarra aurrezteko jarduketak: 45.000 €
- Elizalde haur-parkeko segurtasun-zorua: 10.000 €
- Jarduera legeztatzeko proiektuak eta beste batzuk (Lizeoko igogailua): 35.000 €
- Iparragirre plazako garajeetako lanak: 18.000 €
- Elkarteetako plaza txikiko zorua konpontzea: 20.000 €

Agirre andreak azalpena amaitu duenean, kontu-hartzaile andreari eman dio hitza alkate jaunak, eta aurrekontuaren egonkortasunarekin, finantza-iraunkortasunarekin eta gastu-arauarekin lotutako helburuen betetze-mailari buruz egindako txostenaren berri eman du horrek.

<u>Aurrekontuaren egonkortasuna:</u> aurrekontuaren kitapena onartzeko espedienteak 454.100 €-ko soberakina du, eta, aurrerago doitzea eskatuko duten eragiketa esanguratsuak aurreikusi ez direnez, 1. kapitulutik 7. kapitulura bitarteko diru-sarreren arteko aldea kontuan hartuta egin da kalkulua. 2017rako lege-helburua zero defizita lortzea da. Beraz, aurrekontuaren egonkortasun-helburua bete da.

<u>Finantza-iraunkortasuna:</u> 2017ko abenduaren 31n, zorraren zenbatekoa 2016an ordaintzea aurreikusitako eragiketa arruntengatiko diru-sarreren % 11,91 izango dela aurreikusten da. 2017rako ezarritako lege-helburua kopuru hori % 77tik beherakoa izatea da. Beraz, finantza-iraunkortasunaren helburua lortu da.

- Reparación saneamientos: 15.000 €
- Parque Pagoeta: 10.000 €
- Asfaltado vías públicas: 20.000 €
- Actuaciones ahorro energía alumbrado público: 45.000 €
- Suelo seguridad parque infantil Elizalde: 10.000 €
- Proyectos legalización actividad y otros (ascensor Lizeo): 35.000 €
- Ejecución obras garaje plaza Iparragirre: 18.000 €
- Reparación pavimento plazoleta sociedades: 20.000 €

Finalizada la exposición de la Sra. Agirre, el Sr. Alcalde da la palabra a la Sra, Interventora quien da cuenta del informe emitido sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:

<u>Estabilidad presupuestaria:</u> el expediente de aprobación del presupuesto presenta un superávit de 454.100 €, y dado que no se prevén operaciones significativas que exijan un ajuste posterior el cálculo se ha efectuado como diferencia entre los ingresos de los capítulos 1 al 7. El objetivo legal para 2017 es de déficit cero. Por tato se cumple con el objetivo de estabilidad presupuesta.

<u>Sostenibilidad financiera</u>: A 31 de diciembre de 2017 se prevé que la deuda suponga el 11,91% de los ingresos corrientes que se prevén liquidar en 2016. El objetivo legal establecido para 2017 es que la citada magnitud sea inferior al 77%. Por tanto se cumple con el objetivo de sostenibilidad financiera.

Urretxuko udala

Gastu-araua: gastu konputagarriaren aldaketa 2015aren eta 2016aren artean -% 8,85ekoa da, eta 2017. urterako ezarritako lege-helburua % 2,20tik beherakoa izatea da. Beraz, gastu-araua bete da.

Hitz egiteko txandak hasi direnean, La Rosa jaunak (Irabazi) esan du, proposatutako aurrekontua aztertu ondoren, ingurumenera eta langileen, gazteriaren eta kulturaren arloetara bideratutako izendapenak urriak iruditu zaizkiela, musika-taldeentzako partida bat txertatu den arren. Bestalde, ez zaio beharrezkoa iruditzen liberatutako kargu publikoen soldata % 1 igotzea, eta obra gehiegi aurreikusi direla adierazi du; horregatik guztiagatik, aurrekontuaren aurka bozkatuko dutela jakinarazi du.

Nieves andreak (PSE-EE) adierazi du udalaren egoera ez dela ona, eta zor handia duela; zor hori kitatzeko eta interesak ordaintzeko 450.000 € inguru bideratu behar ditugu urtean. Horregatik, bere talde politikoak proiektuak egokitu behar izan ditu, hainbat kategoriatan banatu ditu, gauzatzeko epearen arabera: epe laburrekoak, hau da, urtearen barnean egitekoak; eta epe luzekoak, hau da, legealdian egitekoak.
Epe laburreko proiektuen artean, honako hauek daude:
- San Martingo haur-parkearen irisgarritasuna.
- Aparizio auzoko fatxaden konponketa, ingurumenaren ikuspegitik nahiz ikuspegi sozial eta arkitektonikotik andeatuta dagoelako.
-Gizarte-zerbitzuen gida bat prestatzea, udalak

Regla de gasto: La variación del gasto computable entre 2015 y 2016 es del -8,85%, y el objetivo legal establecido para el 2017 es que sea inferior al 2,2%. Por tanto se cumple la regla de gasto.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. La Rosa (Irabazi) dice que examinado el presupuesto que se propone ven escasas las consignaciones destinadas a medio ambiente, personal, juventud y cultura, a pesar de que se incluya una partida destinada a los grupos de música. Tampoco ve necesario que se aumente el 1% el salario destinado a los cargos públicos liberados, y no comparten que se contemple la ejecución de tantas obras, es por todo ello que votará en contra de la propuesta presentada.

La sra. Nieves (PSE-EE) dice que la situación del ayuntamiento no es buena y hay una elevada deuda, que nos supone tener que destinar aproximadamente 450.000 € anuales para su amortización e intereses. Es por ello que su grupo político ha tenido que adecuar sus proyectos y los ha dividido en diferentes categorías en función de su plazo de ejecución: a corto plazo, es decir durante el año; y a largo plazo, esto es durante la legilstura.
Dentro de sus proyectos a corto plazo se encuentran:
-la accesibilidad del parque infantil de San Martín,
- la mejora de las fachadas de Aparicio auzoa, por considerar que es un barrio degradado mediomabiental, social y arquitectónicamente.
-elaborar una guía de servicios sociales porque

Urretxuko udala

eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzen ez dituzten pertsonak daudelako oraindik.

-Erakusleiho digital bat garatzea webgunean, bakearekin eta bizikidetzarekin erlazionatutakoa.
-Hizkuntzak nork bere kasa ikasteko programa bat eskaintzea liburutegian.
Egoera berezian dauden emakumeei zuzendutako aholkularitza-zerbitzua ere planteatu zuten, baina programa hori mankomunitatean garatzen ari dira, emakumeen etxean.
Epe luzeko proiektuei dagokienez, Nieves andreak adierazi du legealdian zehar zerrenda bat prestatu nahi dutela hainbat proposamenekin, une honetan aurrera eraman ezin badira ere, beste uneren batean gara daitezkeen proposamenekin, hain zuzen ere. Proiektu horien artean, besteak beste, honako hauek daude: ludoteka bat, Zumarragarekin batera egiten zen kirol-txartela berriro egiteko aukera ematea, ekintzaileei lokalak erabiltzeko aukera ematea (Uggasaren bitartez); horiez gain, 2016ko aurrekontuen debatean proposatutakoak ere gogora ekarri ditu: aparkalekua Nekolalden, lizeoa, Sarralde ingurua, jarduera ekonomikoak bultzatzea eta supermerkatu handiez ahaztea, musika-taldeek entseguak egiteko lokalak eskaintzea. Azken hori une honetan garatzen ari dela eta emaitzak ematen ari dela gaineratu du.
Talde sozialistak aurrekontuaren alde bozkatuko duela jakinarazi du, alde batetik, euren proposamenak onartu direlako, eta, bestetik, aurrekontu egokia eta Urretxuko Udalaren egoera ekonomiko txarrarekin koherentea delako.

creen que todavía hay personas que todavía no conocen los servicios que se prestan desde el municipio.
-desarrollar un escaparate digital en la web relacionado con la paz y la convivencia
-un programa de auto-aprendizaje de idiomas en la biblioteca.

También plantearon el asesoramiento a mujeres que se encuentren en situación especial, pero que este es un programa que ya se está llevando a cabo dentro de Mancomunidad en relación con la casa de la mujer.
En cuanto a los proyectos a largo plazo, la sra. Nieves, indica que lo que pretenden es confeccionar un listado a lo largo de la legislatura con diferentes propuestas que, a pesar de que ahora no se puedan llevar a cabo, pudieran tener cabida en otro momento. Entre estos están, una ludoteca, retomar el carnet deportivo comunitario con Zumarraga, faciltiar locales a emprendedores (a través de Uggasa), y también recuerda los que se propusieron en el debate del presupuesto para el 2016: parking en Nekolalde, lizeo, zona Sarralde, impulsar actividades económicas olvidándose de las grandes superficies, disponer de locales de ensayo para los grupos de música, y dice que, como todos conocen, este último es uno de los que está teniendo posibilidad de desarrollarse y fructificar.

Sigue diciendo que el grupo socialista va a apoyar ese presupuesto, no solo porque se han aceptado sus propuestas, sino porque ven que es un presupuesto adecuado y coherente con la mala situación económica del ayuntamiento de Urretxu.

Zabaleta andreak (EH Bildu) hartu du hitza, eta esan du desberdintasun handiak daudela aurrekontu honen diru-sarreren egoeraren eta 2016ko ekitaldikoaren artean, Agirre andreak esan bezala; izan ere, promozio berrien EIOZk, hirigintza-aprobetxamenduak eta soberakina kontuan hartuta, oso ekitaldi positiboa izan da. Ohiz kanpoko egoera izan da hori, eta une honetan diru-sarrera horiek behera egin dute drastikoki, 800.000 € gutxiago baitaude. Horregatik, gastua murriztu egin behar da, eta nagusiki inbertsioak murriztu behar direla adierazi du. Hala, bada, aurkeztutako proposamena aztertu dutenean, une honetan udalak duen egoerarekiko koherenteak diren inbertsio txikiak planteatu direla ikusi dute, eta inbertsio horiek udal-azpiegiturak mantentzeko beharrezkoak direla esan du.

Hala ere, hirigintzatik iristen diren diru-sarrerez gain, diru-sarrerak lortzeko beste bide batzuk aztertu behar direla pentsatzen dutela adierazi du gero. Zorra ere hor dagoela esan du ondoren, eta 2010. urtean, udalean sartu zirenean, udalak 3.500.000 €-ko zorra zuela; zor hori murriztuz joan da, eta orain ere beheraka egiten jarraitzen du, baina, bere ustez, zorrak izugarri baldintzatzen du udalaren gastua, eta aurrekontu handizaleagoa prestatzeko gogoa ere izan behar da, Urretxuko Udalaren zorpetzea % 16koa baita, Gipuzkoako antzeko beste udalerri batzuetan baino txikiagoa. Bestetik, adierazi du ez dela ahaztu behar ekonomia-jardueren gaineko zergak ekarpen txikia egiten duela Urretxuren kasuan nahiz mankomunitate guztiaren kasuan, eta, hainbat enpresa ixtearen ondorioz, are gehiago murriztu direla diru-sarrera horiek. Esaten ari den horrekin

La sra. Zabaleta, EH Bildu, en primer lugar dice que este presupuesto, tal y como ya ha dicho la sra. Agirre, tiene diferencias importantes en el estado de ingresos respecto al del vigente ejercicio 2016, que con los ICIO de las nuevas promociones, los aprovechamientos urbanísticos y el remanente ha resultado un ejercicio muy positivo. Efectivamente esta ha sido una situación extraordinaria y ahora se ha producido una bajada drástica en esos ingresos, 800.000 € menos. Es por ello que hay que reducir el gasto y entiende que en inversiones. Es por ello que habiendo analizado la propuesta presentada, observan que se plantean pequeñas inversiones que son coherentes con la situación actual y son necesarias para el mantenimiento de las infraestructuras municipales.

Sigue diciendo que, no obstante, piensan que hay que estudiar otras formas de obtener ingresos distintos a las meramente urbanísticas. Respecto al endeudamiento, indica que, efectivamente, existe, que en el año 2010 recibieron un ayuntamiento con 3.500.000 € de deuda, que se ha ido reduciendo y se sigue reduciendo, que este endeudamiento condiciona sobremanera el gasto municipal, pero también entienden que hay que tener ganas de disponer de un presupuesto más ambicioso, teniendo en cuenta además que el endeudamiento en Urretxu es de un 16%, menor que en municipios gipuzkoanos similares. Añade que no hay que olvidar que el IAE constituye un ingreso muy pequeño tanto en Urretxu como en el conjunto de la Mnancomunidad, y que los sucesivos cierres de empresas contribuyen precisamente a que todavía sea menor. Con todo esto que está

guztiarekin azaldu nahi izan du, udal hau kritikatzeko inolako asmorik gabe, gure arazoa ez dela zorpetzea soilik, jarduera ekonomikoen falta ere hor dagoela, eta, bere ustez, eskualde-mailan bultzatu beharko litzateke jarduera hori; horrez gain, esan du prestakuntzan eta jarduera ekonomikoa sustatuko duten programetan inbertitzeko partidak ere txertatzen joan beharko ginatekeela poliki-poliki.

Egin dituzten ekarpenei dagokienez, adierazi du kontuan hartuak izan direla, kuantitatiboki ez bada ere kualitatiboki kontuan hartu dituztela, eta balorazio positiboa egiten dute. Ekarpen horiek hiru multzotan banatu dituzte, eta honako hauek dira:

-sustapen sozioekonomikoa:

a) eskualdean industria suspertzeko plan bat sendotzea; enpresa eta prestakuntza bateratuko dituen programa bat bultzatu behar du planak, eta foro sozioekonomiko bat aktibatu beharko luke baita ere. Horretarako, mankomunitateari egiten zaion ekarpena handitzea proposatzen dute. Proposamen hori kontuan hartu dela nabarmendu du, eta Urola Garaia Mankomunitateari egiten zaion ekarpena 20.000 € handitu dela.

b) Denda txikiak sendotzea; horretarako, langileak kontratatzea eta produktuak saltzen dituzten atari informatikoei diru-laguntzak ematea proposatzen dute

c) Lehen sektorea sendotzea (Bertatik Bertara); horretarako, langileak kontratatzea eta kontsumo-taldeak erabiltzeko lokal bat alokatzeko diru-laguntza ematea planteatzen dute.

d) Ekintzailetza sendotzea, ekintzaile eta autonomo berrientzat diru-laguntzak bideratuz.

e) Mobi-Pro (Schwarzenbruck) programa

diciendo lo que trata de explicar, sin ánimo de criticar a este ayuntamiento, es que nuestro problema no está solamente en el endeudamiento sino también en la falta de actividad económica, que cree que hay que impulsar a nivel comarcal, además incluir poco a poco partidas para invertir en formación y en posibes programas que fomenten la actividad económica.

Respecto a las aportaciones que han realizado, manifiesta que se han tenido en cuenta, aunque no cuantitativamente sí cualitativamente, lo que valoran positivamente. Dice que estas aportaciones se dividen en tres bloques distintos y consisten en:

-promoción socioeconómica:

a) fortalecer un plan comarcal para reactivación de la industria, plan dirigido a un programa de acción que aúna empresa y formación, y a activar un foro socio-económico. Para ello proponen aumentar la aportación a la Mancomunidad. Señala que esta propuesta se ha tenido en cuenta, aumentándose en 20.000 € la aportación a Mancomunidad Urola Garaia.

b) Fortalecer el pequeño comercio, para lo que plantean la contratación de personal y subvenciones a portales informáticos dedicados a la venta de productos.

c) Fortalecer el sector primario (Bertatik Bertara), para lo que plantean contratación de personal, y subvencionar el alquiler de un local para el grupo de consumo.

d) Fortalecer el emprendimiento, disponiendo ayudas para los nuevos emprendedores y autónomos.

e) Reactivar el programa Mobi-Pro

Urretxuko udala

suspertzea. Esan du badakiela horretarako ahaleginetan ari direla, eta pozgarria dela, eta programa horrek dakarren prestakuntza duala aurrera eramango dela espero dute; azkenik, elkarlanean aritzeko prest daudela jakinarazi du.
-Irimo berritzeko plana, kutsadura garbitzeko eta musika-taldeek entseguak egiteko lokalak prestatzeko, eta planaren kudeaketa-eredua. Bere taldeak proposatutako 40.000 €-en ordez 20.000 € bideratu direla adierazi du, baina positibotzat jo dute.
- Diru-kopuru bat zuzentzea oposizioko kide bat partzialki liberatzeko aukerarako.

Horrekin lotuta, adierazi du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legeak eskaintzen duen aukera aurrekontuan txertatzea eskatu dutela, baina oraindik ez dakitela liberazio hori aktibatuko duten edo ez, eta egin beharko den edo egin nahi den oposizio-motaren arabera erabakiko dute, hau da, oposizio hutsa edo oposizio konstruktiboa egitearen arabera. Beraien ustez, batzordeez gain, gobernu-taldeak eta oposizioak bilerak gehiago egin beharko lituzkete, azken asteetan egin den moduan.
Ondoren, azaldu du ekarpen horiek aurrekontuko zenbatekoen barnean txertatu ahal izateko, euren ustez lehentasunik ez zuten zenbait partida kentzea edo murriztea planteatu zutela. Honako hauek dira:
- Plaza estaltzea. Beharrezkoa dela uste dute, baina, euren ustez, lan horrek ez du lehentasunik. Gainera, zer eremu estali behar den adostu behar dela esan du; hala ere, badakite bilerak egin dituztela San Martin-Barrenkaleko bizilagunekin, eta badirudiela hori

(Schwarzenbruck). Dice que ya sabe que se está intentando de lo cual se alegran, y esperan que esa formación dual que supone este programa pueda llevarse a cabo, para lo cual están dispuestos a trabajar conjuntamente.

-plan renovación Irimo, dedicado a la descontaminación y habilitiación de locales de ensayo para grupo musicales y su modelo de gestión. Señala que se han incluido 20.000 € en lugar de los 40.000 € que habían propuesto, pero lo entienden positivo.
- una cantidad destinada a la remuneración de una posible liberación parcial de un miembro de la oposición.
A este respecto informa que, independendientemente de que se haya solicitado que se incluya en el presupuesto la posibilidad que la Ley Municipal de Euskadi ofrece, no saben si activarán esta liberación, y ello dependerá del tipo de oposición que se tenga o quiera hacer, una mera oposición o una oposición constructiva. Opinan que, más allá de las propias comisiones, el equipo de gobierno y la oposición tienen que mantener reuniones, tal y como se ha venido haciendo estas últimas semanas.
Sigue diciendo que para que estas aportaciones tuvieran cabida dentro de los números que se manejaban, plantearon la supresión o minoración de varias partidas que entendían como no prioritarias:
- Cubrición de una plaza. La entienden necesaria pero no prioritaria. Además entienden que se tiene que consensuar el espacio a cubrir, aun cuando también conocen que se ha tratado con los vecinos de la que parece, va a ser la opción, esto es San Martín-Barrenkale,

izango dela aukera eta ados jarri direla.

- Irisgarritasun-plana eguneratzea, oraindik agortu gabe dagoen plan bat badagoelako.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztea, Arau Subsidiarioen Berrikuspena egiten ari direnez, 2018ra atzeratuko litzatekeelako planaren idazketa.
- Igerilekuaren kudeaketari eta zerbitzuari dagokion kontratua; aurrekontuan jasotako kopurua % 7 murriztea planteatzen dute. Horrekin lotuta, igoera horren arrazoia azaldu zaiela adierazi du, lizitazio-prezioa igotzeko beharra, hain zuzen, langileen kostuak bideragarriak izan daitezen, subrogatu beharreko langileen baldintzen arabera.

llegándose a un acuerdo.

- Actualización plan accesibilidad, porque ya tenemos un plan que entienden todavía no agotado.
- Redacción del PGOU, dado que encontrándose en ejecución la Revisión de NN.SS., pospondrían esta redacción para 2018.
- Contrato gestión y servicio piscina, plantean una minoración del 7% en la cantidad recogida en el presupuesto. A este respecto expone que se les ha explicado la razón del incremento, que radica en la necesidad de incrementar el precio de licitación para que puedan ser viables los costos de personal de acuerdo a las condiciones que actualmente tiene el personal a subrogar.

Azkenik, Zabaleta andreak azaldu du EH Bilduren aldetik EAJren jarrera positiboagoa ikusi dutela, eta, bere taldeak egin dituen ekarpenak kontuan izan dituztela ikusita, ez dutela aurkeztutako aurrekontuaren aurka bozkatuko, abstenitu egingo direla, berori aurrera eramatea ez oztopatzeko.

Finalmente la sra. Zabaleta expone que, desde EH Bildu se ha observado una postura más positiva en la actitud de EAJ, y teniendo en cuenta además que se han tenido en cuenta sus aportaciones no votarán en contra del presupuesto presentado, absteniéndose para no obstaculizar el mismo.

Agirre andreak, lehenik, eskerrak eman dizkie gainerako kideei osoko bilkuran agertu duten jarrera positiboarengatik. La Rosa jaunari erantzun dio ez duela haren iritzi bera, eta iritzi eta gogoeta horiek aurrez egin dituzten batzordeetan adierazi izana gustatuko zitzaiokeela.

La sra. Agirre, en primer lugar, agradece la postura positiva que se está mostrando en esta sesión plenaria. Al sr. La Rosa le dice que no comparte su opinión y que le hubiera gustado que hubiera compartido sus opiniones y reflexiones en las comisiones que se han celebrado.

Bestalde, eskainitako babesa eskertu dio Nieves andreari, eta aurkeztu dituzten proposamenak interesgarriak iruditu zaizkiola

A la sra. Nieves le agradece su apoyo, y le dice que las propuestas qu ha presentado les han parecido interesantes. Con respecto al carnet

adierazi dio. Kirol-txartel komunitarioari dagokionez, bera ere kirol-instalazio guztietan erabiltzeko txartel bakarraren aldekoa den arren, mankomunitatearen barnean kontu horrek soka luzea duela eta txartel bakarra ezartzeko proposamenak ez duela aurrera egin gogorarazi dio; Sarralderi dagokionez, talde nazionalistak eremu horrek jarduera ekonomikoren bat hartzea nahiko lukeela esan dio.

EH Bilduri, berriz, abstenitzea eskertu dio, eta Zabaleta andreari esan dio zenbait gogoetatan ados egon daitezkeela eta daudela, baina ez dutela ahaztu behar udalak mailegutan 3.500.000 €-ko zorra jaso zuela oinordetzan, eta 500.000 €-koa Aquarberekin; zor hori azken zazpi urteetan amortizatzen ari direla, beste hiru urte falta direla oraindik guztiz ordaintzeko, eta zorpetze horrek udalaren jarduera erabat mugatzen duela esan du. Zabaleta andreak adierazi du egiturazko diru-sarrerak hobetu behar direla, ekonomia-jardueren gaineko zergatik datozenak, adibidez, baina ez da ahaztu behar zerga hori enpresa handi samarrek ordaintzen dutela soilik, enpresen eragiketen bolumenak 1.000.000 €-tik gorakoak direnean, eta Urretxun gehienak mikroenpresak dira. Horrez gain, ekonomia-jardueren gaineko zerga ordaintzen duten enpresa horiek hartzeko beharrezkoa da industria-lurzorua izatea, eta, EAJren ustez, alor horretan lan egin behar da, eta, horretarako, Irimo suspertu behar da. Azken batean, egia da zergen diru-sarrera sistema hobetuz aurrekontuko diru-sarreren egoera hobetuko litzatekeela, baina ekonomia-jardueren gaineko zergaren bidez sartzen diren diru-sarrerak ez dira handituko udalerrian

deportivo comunitario, aún y cuando es partidaria de un carnet único para todas las instalaciones deportivas, le recuerda que ha habido una larga historia en el seno de Mancomunidad para instaurar ese carnet no habiéndose conseguido, y con respecto a Sarralde le dice que al grupo nacionalista le gustaría que tuviera actividad económica.

A EH Bildu le agradece su abstención, y a la sra. Zabaleta le dice que pueden estar y están de acuerdo en algunas de sus reflexiones, pero que no hay que olvidar que, efectivamente, el ayuntamiento heredó 3.500.000 € de deuda en préstamos y 500.000 € con Aquarbe, deuda que se está amortizando los últimos siete años, quedando todavía tres años para su total extinción, y este endeudamiento condiciona totalmente la actividad municipal. La sra. Zabaleta dice que hay que mejorar los ingresos estructurales, como los provenientes del IAE, pero no hay que olvidar que este es un impuesto que solo abonan las empresas con cierto tamaño, dado que se paga el impuesto cuando el volumen de operaciones supera el 1.000.000 € y Urretxu lo que tiene son microempresas. Además para disponer de esas empresas sujetas al pago del IAE se necesita suelo industrial y precisamente es ahí donde EAJ entiende que hay que trabajar, para lo cual hay que reactivar Irimo. En definitiva, es cierto que mejorando el sitema de ingresos tributarios se mejoraría el estado de ingresos presupuestarios, pero los ingresos provenientes del IAE no se verán mejorados en tanto no se determine el suelo industrial disponible en el municipio.

eskuragarri dagoen industria-lurzorua zehazten ez den bitartean.
EH Bilduk aurkeztutako proposamenei dagokienez, aurkezpena positiboa iruditu zitzaiela esan die, eta proposatutako aurrekontua ez desorekatzeko lehentasunezkoak iruditzen ez zaizkien proiektu batzuk baztertu edo murriztu dituztela, baina gobernu-taldeari horiek lehentasunezkoak iruditzen zaizkiola.
Ondoren, esan du, talde nazionalistaren ikuspegitik, sustapen sozioekonomikorako partida guztiak, lehen sektorekoak barne, Uggasa garapen-agentziaren bidez garatzen direla, eta horregatik handitu dutela Urola Garaia Mankomunitateari dagokion ekarpenaren partida.
Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez, berriz, gobernu-taldearen helburua izateaz gain, legeak bete beharreko epe bat ezartzen duela azaldu du, eta dokumentua esleitzeko eta idazteko beharrezko prozesua batuz gero, nahitaezkoa dela 2017ko aurrekontuan kontuan izatea.

Zabaleta andreak krisi sakona jasan duten beste udalerri batzuen egoerari buruz eta krisitik irteteko hartu dituzten irtenbideei buruz egindako gogoetari dagokionez, esan du berari ere udalerri horiek inbidia ematen diotela, baina adierazi du ez dugula gure burua engainatu behar, udalerri horiek Urretxuk ez dituen soberakin handiak dituztelako.

Nieves andreak eskatu du hitza, eta azaldu du lehenago aipatu dituen epe laburreko proiektu horiek ez dituztela kopuru handiak eskatzen, guztira 43.000 € beharko liratekeelako beroriek aurrera eramateko.

En cuanto a las propuestas que presentó EH Bildu, le dice que su presentación les pareció positiva, y que han observado que para presentar las mismas sin desequilibrar el presupuesto propuesto, han suprimidio o minorado algunos proyectos que no les parecen prioritarios y al equipo de gobierno sí.

Sigue diciendo que el grup nacionalista entiende que todas las partidas relativas a la incentivación socio-económica, incluido el sector primario, se llevan a cabo a través de la agencia de desarrollo Uggasa, cuestión por la cual han aumentado la partida correspondiente a la aportación a la Mancomunidad Urola Garaia.

En cuanto al PGOU, señala que, además de ser un objetivo del equipo de gobierno, existe un plazo legal que hay que cumplir al que si se le une el proceso necesario para la adjudicación y la redacción del documento, hace imposible no tenerlo en cuenta en el ejercicio presupuestario de 2017.
En cuanto a la reflexión realizada por la sra. Zabaleta sobre la situación de otros municipios que se han visto inmersos en una profunda crisis y su forma de solventar la misma, le indica que ella también tiene enviudia de esos municipios, pero que no hay que olvidar ni engañarse, dado que estos municipios, tienen remanentes importantes de los cuales Urretxu no dispone.

La sra. Nieves pide la palabra para aclarar que esos proyectos a corto plazo de los que ha habaldo, económicamente no suponen una suma importante dado que en total alcanzan los 43.000 €.

Zabaleta andreak eskatu du hitza, eta esan du ados dagoela Agirre andrearekin udalaren zorrari buruz eman duen azalpenean, baina bere esku-hartzearen bidez Urretxu uharte bat ez dela argi utzi nahi izan duela, eta beste udalerri batzuek ere antzeko egoera bizi dutela adierazi nahi izan duela. Ekonomia-jardueren gaineko zergari buruz hitz egin dute, eta ondo ezagutzen dituzte Urretxuko enpresen ezaugarriak, baina beste erakunde batzuekin batera lan egiteko beharra azpimarratu nahi izan dute. Azkenik, soberakin handiak dituzten udalerriek sortzen dieten inbidiari buruz, azaldu du udalerri horietan enpresa sendoak daudelako dituztela soberakin horiek.

Zinegotzien bigarren txanda amaiturik, alkate jaunak eskertu egin die zinegotzi guztiei beraien hitzengatik eta tonuagatik. Era berean, aditzera eman du asko lan egin dela, baina gogora ekarri du oraindik ere badagoela zer egin, gauza txiki asko daukagula egiteko, eta ideia gisa harremanetan hobetu beharra jaso duela osoko bilkura honetatik.

Gaia botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martín (PSE-EE) y Nieves (PSE-EE) zinegotziek {7 boto aldeko}; La Rosa zinegotziak (Irabazi) aurkakoa eman du, eta Zabaleta (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu) zinegotziak abstenitu egin dira {5 abstentzio}; ondorioz, honako hau erabaki da:

La sra. Zabaleta pide la palabra y dice estar de acuerdo con la sra. Agirre en lo que ésta ha expuesto sobre la deuda municipal, pero que lo que quería en su intervención era desmentir y aclarar que Urretxu no es una isla y que la situación que tenemos es común a muchos municipios. Han estado hablando del IAE, y ya conocen las características de las empresas urretxuarras, pero entienden la ambición como una necesidad de trabajo con otras instituciones. Y en cuanto a la envidia hacia esos municipios que tienen remanentes importantes, dice que los tienen porque disponen de empresas fuertes.

Finalizada la segunda ronda de intervenciones, el sr. alcalde agradece a todos sus intervenciones y el tono de las mismas. Asimismo dice que es cierto que se ha trabajado mucho, pero también recuerda que sigue habiendo trabajo que hacer, que tenemos muchas pequeñas cosas que llevar adelante, y que recoge de esta sesión plenaria y como idea la mejora de las relaciones.

Sometido el asunto a votación, con los votos a favor del sr. alcalde y de l@s concejales sr@s. Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Martín (PSE-EE) y Nieves (PSE-EE) {7 votos a favor}, el voto en contra del sr. La Rosa (Irabazi), y las abstenciones de l@s ediles sr@s. Zabaleta (EH Bildu), Badiola (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu) y Otegi (EH Bildu) {5 abstenciones}, se acuerda:

**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokor bakarrari, horren laburpena kapituluka hauxe delarik:

**Primero**.- Aprobar inicialmente el Presupuesto General único para el ejercicio 2017, cuyo resumen por capítulos es el siguiente:

### GASTUAK/ESTADO DE GASTOS

| Kap. | Izena | € |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak / Gastos personal | 2.224.034,30 |
| 2 | Ondasun arruntak eta zerbitzuak/Gastos corrientes y de servicios | 3.822.356,73 |
| 3 | Finantza gastuak / Gastos financieros | 27.615,00 |
| 4 | Transferentzia arruntzak / Transferencias corrientes | 1.578.227,45 |
| 6 | Inbertsio errealak / Inversiones reales | 455.370,59 |
| 7 | Kapital transferentzikak / Transferencias de capital | 142.650,00 |
| 8 | Finantza aktiboak / Activos financieros | 100,00 |
| 9 | Finantza pasiboak / Pasivos financieros | 454.000,00 |
| | **Guztira / total** | **8.704.206,07** |

### SARRERAK/ESTADO DE INGRESOS

| Kap. | Izena | € |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak / Ingresos directos | 1.615.000,00 |
| 2 | Zeharkako zergak / Ingresos indirectos | 100.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak / Tasas y otros ingresos | 1.784.940,00 |
| 4 | Transferentzia arruntzak / Transferencias corrientes | 4.948.350,00 |
| 5 | Ondarearen sarrerak / Ingresos patrimoniales | 55.916,07 |
| 6 | Inbertsio errealak besterentzea / Enajenación de inversiones reales | 200.000,00 |
| 7 | Kapital transferentziak / Transferencias de capital | 0,00 |

| | | |
|---|---|---|
| 8<br>9 | Aktibo finantzarioak / Activos financieros<br>Pasibo finantziarioak / Pasivos financieros | 0,00<br>0,00 |
| | **Guztira / total** | **8.704.206,07** |

**Bigarrena.-** Izaera berarekin, Aurrekontu Exekuziorako Udal Araua onartzea.

**Segundo**.- Aprobar con el mismo carácter la Norma municipal de Ejecución Presupuestaria.

**Hirugarrena.-** Jendaurrean agertzea onartutako aurrekontua, 15 eguneko epean, Udalbatzaren iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Epe hori igaro eta erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartutzat hartuko da aurrekontua, beti ere erabaki berririk hartu beharrik gabe.

**Tercero**.- Exponer al público el Presupuesto aprobado por un plazo de 15 días mediante anuncio en el Tablón de anuncios de la Corporación y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
Transcurrido dicho plazo sin reclamaciones dicho Presupuesto se entenderá aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Laugarrena.-** 2017. urteko plantila organikoa onartzea, I eranskin gisa dagoena.

**Cuarto**.- Aprobar la plantilla orgánica para el año 2017, que se acompaña como Anexo I.

**Bosgarrena.-** 2017. Urteko lanpostuen zerrenda onartzea, II eranskin gisa dagoena.

**Quinto**.- Aprobar la relación de puestos de trabajo para el año 2017, que se acompaña como Anexo II.

## ANEXO I ERANSKINA

# PLANTILA ORGANIKOA - PLANTILLA ORGANICA 2017

| Num. Plazas | Denominación | Grupo L.6/89 | Situación | Observaciones |
|---|---|---|---|---|
| **PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA** | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FUNCIONARIOS DE HABILITACION NACIONAL** | | | | |
| | ** Subescala Secretaría* | | | |
| 1 | Secretario | A1 | V | Interino |
| | ** Subescala Intervención* | | | |
| 1 | Interventor | A1 | V | |
| **ESCALA ADMINISTRACION GENERAL** | | | | |
| | ** Subescala técnica* | | | |
| 1 | Técnico Administración General | A1 | V | |
| 1 | Técnico Desarrollo Sostenible | A2 | F | |
| | ** Subescala administrativa* | | | |
| 1 | Responsable O.A.C. | C1 | V | |
| 3 | Administrativo A.G. | C1 | 1P<br>2 V | 2 Interino |
| | ** Subescala auxiliar* | | | |
| 1 | Aux. Administrativo A.G. | C2 | P | |
| 1 | Aux. Empleo, personal, Industria y Comercio | C2 | P | |
| **ESCALA ADMINISTRACION ESPECIAL** | | | | |
| | ** Subescala Servicios Especiales* | | | |
| | Clase: Policía Municipal | | | |
| 1 | Jefe | C1 | P | Excedencia volunt. |
| 4 | Agente | C2 | 4P | 1excedencia volun.<br>1 excedencia forz. |
| 3 | Agentes | C1 | 3P | 1 excedencia volun. |

| Num. Puestos | Denominación | Categoria profesional | Grupo | Situación | Observac. |
|---|---|---|---|---|---|
| **PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL** | | | | | |
| 1 | Técnico gestión administración | 2 | A2 | F | |
| 1 | Coordinador Intervención Social | 1 | A2 | F | |
| 1 | Asistente Social | 1 | A2 | F | Excedencia voluntaria |
| 1 | Aparejador | 2 | A2 | F | |
| 1 | Coordinador Promoción Socio-Cultural | 2 | A2 | F | |
| 2 | Técnico especialista cultura | 2 | C1 | 2 F | |
| 1 | Archivero | 2 | C1 | F | |
| 1 | Técnico especialista biblioteca | 2 | C1 | F | Jornada 50% |
| 1 | Auxiliar administrativo secretaría/alcaldía | 7 | C2 | | Contrato relevo |
| 1 | Administrativo urbanismo | 2 | C1 | F | |
| 1 | Encargado de obras y servicios | 4 | C1 | F | |
| 6 | Operario servicios múltiples | 8 | C2 | 4 F<br>2 V | 2 interino |
| 1 | Técnico Promoción Deportiva | 2 | A2 | F | |

## ANEXO II ERANSKINA

## LANPOSTUEN ZERRENDA - RELACIÓN PUESTOS TRABAJO 2017

| Denominación | Forma provisión | Area Dependencia | Escala | Subescala | Grupo | C.D. D.207/90 | Dedicac | Titulación | Situación | P.L. Preceptividad | Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Secretario** | Concurso | Secretaria.General | H.N. | Secretario | A1 | 26 | 100 | Licenciado Derecho/ Políticas/sociología | Interino | 4 (31-12-1994) | |
| **Interventor** | Concurso | Servicios Económicos | H.N. | Intervención | A1 | 25 | 100 | Licenciado Derecho/ Económicas/ Empresariales | Vacante | 4 (31-01-1991) | |
| **Administrativo Tesorero** | Concurso oposición | Servicios Económicos | A.G. | Administrativo | C1 | 20 | 100 | FPII o equivalente | Vacante | 3 (31-12-1994) | Interinidad |
| **Administrativo** | Concurso oposición | Secretaría General | A.G. | Administrativo | C1 | 17 | 100 | FP II o equivalente | Vacante | 3 (31-12-1994) | Interinidad |
| **Administrativo** | Concurso oposición | Secretaría General | A.G. | Administrativo | C1 | 17 | 100 | FP II o equivalente | Propiedad | 3 (31-12-1993) | |
| **Auxiliar Empleo** | Concurso-Oposición.C.E.I. | Empleo, personal | A.G. | Auxiliar | C2 | 18 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 3 | |
| **Auxiliar Administrativo** | Concurso oposición C.E.I. | Servicios Económicos | A.G. | Auxiliar | C2 | 17 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 3 | |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jefe Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C1 | 21 | 100 CDA (15%) | FP II o equivalente | Excedencia voluntaria | 3 (31-12-1994) | |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C1 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Excedencia voluntaria | 2 (08-02-1993) | Cubierto interinamente |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 (31-12-1991) | |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Excedencia voluntaria | 2 (14-05-2001) | Cubierto interinamente |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 (14-05-2001) | |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Excedencia forzosa | 2 | Cubierto interinamente |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C1 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 (27-10-2008) | Coordina la PM |
| **Policía Municipal** | Concurso oposición | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C1 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 (27-10-2008) | |
| **T.A,G.** | Concurso-Oposición. | Secretaría General | A.G. | Técnica | A1 | 24 | 100 | Licenciado Derecho/Económic. Empresariales | Vacante | 3 (04-10-2010 | |
| **Técnico Desarrollo Sostenible** | Concurso oposición | Urbanismo, obras y Servicios | A.G. | Técnica | A2 | 20 | 100 | Ingeniero técnico agrónomo o equivalente | Propiedad | 3 (04-10-2010) | |
| **Resposanble O.A.C.** | Promoción Interna. Concurso oposición | Secretaría General | A.G. | Administrativa | C1 | 20 | 100 | FP II o equivalente | Vacante | 3 (4-10-2010.) | |

## LAN HITZARMENEKO LANGILERIA FINKOA - PERSONAL LABORAL FIJO

| Denominación | Forma provisión | Area Dependencia | Grupo | CD | Dedicación | Titulación | P.L. Preceptividad | Situación | Observciones |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Técnico de Gestión de Administración** | Reasignación-readscripción | Secretaría General | A2 | 20 | 100 | Diplomatura | 3 (31-12-1994) | F | |
| **Coordinador Intervención Social** | Concurso oposición | Intervención Social | A2 | 21 | 100 | Diplomado Trabajo Social | 3 (31-12-1994) | F | |
| **Asistente Social** | Concurso oposición | Intervención Social | A2 | 20 | 100 | Diplomado Trabajo Social | 3 (31-12-2002) | F Excedencia voluntaria | Interinidad |
| **Aparejador** | Concurso oposición | Urbanismo, Obras y Servicios | A2 | 22 | 100 | Aparejador o Arquitecto Técnico | 4 (31-12-1994) | F | |
| **Administrativo** | Concurso-oposición | Urbanismo, Obras y Servicios | C1 | 17 | 100 | FP II Administrativo, Bachiller superior, o equivalente | 3 (31-12-2002) | F | |
| **Coordinador de Promoción Socio-Cultural** | Promoción Interna Concurso-oposición | Promoción Socio-Cultural | A2 | 21 | 100 CDA (10%) | Diplomatura | 3 (4-10-2010) | F | |
| **Técnico promoción deportiva** | Readscripción | Promoción Socio-Cultural | A2 | 20 | 100 | Diplomado Educación Física | 3 (31-12-1994) | F | |
| **Técnico Especialista de Cultura** | Readscripción | Promoción Socio-Cultural | C1 | 17 | 100 CP | FP II o equivalente/ Título D euskera | 4 | F | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Técnico Especialista de Cultura** | Concurso-oposición | Promoción Socio-Cultural | C1 | 17 | 100 | Bachiller superior/ FPII o equivalente | 3 (31-12-1991) | F | |
| **Técnico Especialista de Biblioteca** | Concurso oposición | Promoción Socio-Cultural | C1 | 18 | 50 | FP II o equivalente | 3 (01-03-1999 | F | Jornada 50%, ampliada al 100% hasta 31-12-2017 |
| **Archivero** | Concurso-oposición | Secretaría General | C1 | 19 | 100 | Bachiller superior o equivalente | 3 (31-12-1993) | F | |
| **Aux.admvo. Alcaldía-secretaría** | Concurso-oposición | Secretaría General | C2 | 17 | 100 | FPI administrativo o equivalente | 2 (…………) | Contrato relevo | 100% relevista 25% relevado |
| **Encargado Brigada de obras** | Concurso oposición | Urbanismo, obras y servicios | C1 | 19 | 100 CDA (5%) C.Cement. | FPII o equivalente | 2 (31-12-1994) | F | |
| **Operario servicios múltiples** | Concurso oposición | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 C.Cement. | Graduado escolar/ FPI o equivalente | 1 | F | |
| **Operario servicios múltiples** | Concurso oposición Consolidación empleo interino | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | 1 | V | Interinidad |
| **Operario servicios múltiples** | Concurso oposición | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 C.Cement. | Graduado escolar/ FPI o equivalente | 1 | F | |
| **Operario servicios múltiples** | Readscripción | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 C.P. | Graduado escolar FPI o equivalente | 2 (31-12-1994) | Contrato relevo | Interinidad |
| **Operario servicios múltiples** | Promoción interna Concurso-oposición | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 C.P. | Graduado escolar, FPI o equivalente | 2 ………… | F | |
| **Operario servicios múltiples** | Promoción interna Concurso-oposición | Urbanismo, obras y servicios | C2 | 13 | 100 | Graduado escolar, FPI o equivalente | 2 ………… | F | |

## ZERBITZU BEHARRETARA LOTUTAKO ALDI BATERAKO FUNTZIONARIOAK
## PERSONAL FUNCIONARIO INTERINO SUJETO A NECESIDADES DEL SERVICIO

| Denominación | Area Dependencia | Escala | Subescala | Grupo | C.D. D.207/90 | Dedicac | Titulación | Situación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Policía Municipal** | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Necesidades servicio |
| **Policía Municipal** | Seguridad ciudadana | A.E. | Servicios Especiales | C2 | 16 | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Necesidades servicio |

## LAN HITZARMENEKO ALDI BATERAKO LANGILEAK - PERSONAL LABORAL TEMPORAL

| Denominación | Area Dependencia | Grupo | Dedicación | Titulación | Tipo contrato |
|---|---|---|---|---|---|
| **Administrativo cultura** | Promoción socio-cultural | C1 | 100 | FPII o equivalente | Obras o servicio duración determinada |
| **Administrativo servicios sociales** | Intervención Social | C1 | 100 | FPII o equivalente | Obra o servicio duración determinada (programa refuerzo servicios sociales) |
| **Ordenanza** | Secretaría General | E | 60 | Certificado escolaridad | Obra o servicios duración determinada (sujeto a resolución definitiva I.P.T.) |

**5.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoa: deuseztasun-deklarazioa.**

2016ko abenduaren 19an Alkate jaunak aurkeztutako proposamenaren berri eman da, jarraian hitzez hitz jasotzen den testua hain zuzen ere:

*2016ko urriaren 27an Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak 117/2016 zk duen sententzia eman zuen; horren bitartez:*

- *Goian adierazitako ebazpen administratiboaren aurka Estatuko Administrazio Orokorrak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartzea, eta ondorioz, Urretxuko Udalak 2016-2017 aldirako egin duen Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren deuseztasuna deklaratzea.*

*Sententzia hau datorren urtarrilaren 30a baino lehen bete beharko da.*

*Horrenbestez, honako hau proposatu da:*

***Bakarra.-** 2016ko urriaren 27an Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak emandako 117/2016 zk duen sententzia betearaztea, eta horren arabera iragarkia argitaratzea GAOean, aipatutako Plan Estrategikoaren deuseztasunaren berri emango duena.*

Dagokion Batzorde Informatiboak gai honi buruzko diktamenik eman ez duenez, AJAren

**5.- Plan Estratégico Subvenciones. Declaración nulidad.**

Se da cuenta de la propuesta presentada por el sr. Alcalde de fecha 19 de diciembre de 2016, cuyo texto se transcribe literalmente a continuación:

*Con fecha 27 de octubre de 2016 por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia se dictó sentencia, nº 117/2016, por la que:*

- *Estima íntegramente el recurso contencioso-administrativo interpuesto por la Administración General del Estado contra la resolución administrativa indicada en el encabezamiento, y en consecuencia declaro la nulidad del Plan Estratégico de Subvenciones elaborado para el período 2016-2017, por el Ayuntamiento de Urretxu.*

*Esta sentencia deberá ser cumplida antes del próximo 30 de enero.*

*Por todo ello se propone:*

***Único.-** Proceder a la ejecución de la sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia se dictó sentencia, nº 117/2016 con fecha 27 de octubre de 2016, y en su virtud proceder a la publicación en el BOG de anuncio por el que se informa de la nulidad del citado Plan Estratégico*

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en

82.3 artikuluaren arabera, eguneko gai-zerrendan sartzea berretsi da aho batez, eta botuetara eramanda aho batez onartu da aurkeztutako proposamena.

virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día, y sometido a votación, por unanimidad se aprueba la propuesta presentada.

**6.- Dokumentu etikoa.-**

Alkate jaunak gogora ekarri du 2015eko azaroan onartu zela Jokabideen eta Gobernu Onaren Kodea, eta Agirre andreari eman dio hitza; honek azaldu du Gardentasun Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeen Legeak kode etikoa edukitzea exijitzen dutela, alkate jaunak esan duen bezala udaletxe honetan dagoeneko onarturik dagoena; baina exijitzen dute baita ere zinegotzi bakoitzak atxikimendua sinatzea, Udalbatzari onartzeko proposatzen zaion agiria.

Dagokion Batzorde Informatiboak gai honi buruzko diktamenik eman ez duenez, AJAren 82.3 artikuluaren arabera, eguneko gai-zerrendan sartzea berretsi da aho batez, eta botuetara eramanda aho batez erabaki da:

**Bakarra.-** Jokabidearen, gobernu onaren eta Urretxuko Udalaren kalitatearekiko konpromisoaren kodearekiko atxikimendu adierazpen eredua onartzea. Testuak honela dio hitzez hitz:

*Toki erakundeen Jokabideen Kodea arautzen duen apirilaren 7ko 2/2016 LEGEA, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, argitaratu zen 2016ko apirilaren 14an; bertan adierazten da gainera tokiko hautetsiek atxikimendua eman beharko diotela jokabide kodeari, espreski, indibidualki eta euren borondatez. Eta nolanahi*

**6.- Documento ético.-**

El sr. alcalde recuerda que en noviembre de 2015 se aprobó el Código de Conducta y Buen Gobierno, y da la palabra a la sra. Agirre, quien expone que la ley de transparencia y la ley de instituciones locales de Euskadi exigen disponer de un código ético, que como ha dicho el sr. alcalde ya ha sido aprobado en este ayuntamiento, pero también exigen que cada concejal/a suscriba una adhesión, documento cuya aprobación se propone a este Pleno.

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día, y sometido a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Único.-** Aprobar el modelo de declaración de adhesión individualizada al código de conducta, buen gobierno y compromiso con la calidad del Ayuntamiento de Urretxu. Cuyo texto se transcribe a continuación:

*Con fecha 14 de abril de 2016, se publicó la LEY 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en el que se regula el Código de Conducta de las entidades locales, señalando además, que La adhesión al código de conducta por los electos y electas locales deberá ser expresa, individual y voluntaria. Y en todo caso, a los miembros de las entidades*

ere, tokiko erakundeetako kideei aplikagarri izango zaizkie ekainaren 26ko 1/2014 Legearen, Kargu Publikoen Jokabide eta Interesen Gatazkak arautzen duen Legearen, bigarren xedapen gehigarrian ezarritako jarduketa eta jokabide printzipioak.

2015eko azaroaren 26an, Urretxuko Udaleko kalitate instituzionalerako konpromiso, jokabide eta gobernu onerako kodea onartu zuen Udalbatzak. Ondorioz, zinegotzi bakoitzak banakako atxikimendua eman behar dio.

Behean sinatzen duenak, ………………………………….....................
jaun/andreak, NAN ..........................., azaroaren 26ko osoko bilkuran onartutako kalitate instituzionalerako konpromiso, jokabide eta gobernu onerako Kodearen edukiari jarraituz, hau adierazten du:

1.– Dokumentu honen idazpuruan aipatutako Kodea eskuratu duela.

2.– Irakurri ondoren, kodearen edukiari erabat atxikitzen zaiola, eta konpromisoa hartzen duela bertan jasota dauden printzipio eta obligazioak betetzeko. Nolanahi ere, tokiko erakundeetako kideei aplikagarri izango zaizkie ekainaren 26ko 1/2014 Legearen, Kargu Publikoen Jokabide eta Interesen Gatazkak arautzen duen Legearen, bigarren xedapen gehigarrian ezarritako jarduketa eta jokabide printzipioak.

3.– Kodea zabaltzen eta erabiltzen laguntzeko konpromisoa onartzen duela, baita horri

locales les serán de aplicación los principios de actuación y de conducta previstos en la disposición adicional segunda de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos
Con fecha 25 de noviembre de 2015, el Ayuntamiento en pleno, aprobó el Código de conducta, buen gobierno y compromiso por la calidad institucional del Ayuntamiento de Urretxu. En consecuencia, debe procederse a la adhesión individualizada de cada concejal/a al mismo.

El abajo firmante, Don/Doña……………………., coin DNI…………………….., en virtud del contenido del Código de conducta, buen gobierno y compromiso por la calidad institucional aprobado en fecha 25 de noviembre, declara:

1.- Que ha tenido acceso al Código citado en el encabezamiento de este documento.

2.- Que, una vez leído, se adhiere al contenido del Código en todos sus términos, comprometiéndose al cumplimiento de los principios y obligaciones en él contenidos. En todo caso, a los miembros de las entidades locales les serán de aplicación los principios de actuación y de conducta previstos en la disposición adicional segunda de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos.

3.- Que acepta el compromiso de facilitar su divulgación y aplicación, así como las obligaciones que comporta la adhesión al

*atxikitzeak dakartzan obligazioak ere.*

*4.– Bere gain hartzen duela dimisioa aurkeztu eta kargua uzteko obligazioa, baldin eta neurri hori aurreikusita badago Etika eta Jokabide Kodean ezarritako jokabideren bat edo gehiago betetzen ez den kasurako.*

*5.– Baimena ematen duela bere errenta-aitorpenen eta, hala badagokio, ondarearen zerga-oinarriei buruzko informazioa argitaratzeko.*

*mismo.*

*4.- Que asume la obligación de presentar la dimisión en el cargo si se incurre en un supuesto en el que se prevé tal medida en caso de incumplimiento de alguna o algunas de las conductas establecidas en el Código*

*5.. Que autoriza la publicación de la información relativa a sus bases imponibles de las declaraciones de la renta y, en su caso, del patrimonio*

**8.- 2016ko azaroaren 25eko Alkatetzaren Ebazpena: berrestea.**

Azaroaren 25an emandako ebazpena irakurri da, honen testua honakoa izanik:

*Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 E.Dekretuaren 47.1 eta 2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Alkateordeek, euren izendapenaren arabera, Alkatea dituen betebehar guztietan ordezkatzen dute, hau ez dagoenean beste kasu batzuen artean. Ordezkapen hau ezin da aurrera eraman ez badago espreski eginda.*

*Hau guztia dela eta, eta aipatu azaroaren 28ko 2568/1986 E.Dekretuaren 44 artikuluaren arabera, honako honen bidez,*

**8.- Resolución de Alcaldía 25 de noviembre 2016: ratificación.**

Se da lectura a la resolución de Alcaldía dictada el 25 de noviembre pasado cuyo texto se transcribe a continuación:

*Conforme al art. 23.3 de la ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, y 47.1 y 2 del R.D. 2568/1986, de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, corresponde a los Tenientes de Alcalde sustituir en la totalidad de sus funciones y por el orden de su nombramiento al Alcalde en los casos de ausencia, entre otros., no pudiendo ser éstas asumidas sin delegación expresa.*

*En consecuencia, y visto lo dispuesto en el art. 44 del citado R.D.2568/1986, de 28 de noviembre, por el presente,*

Urretxuko udala

***EBAZTEN DUT***

***Lehena.-*** *Alkatearen funtzioak Lehenengo Alkateordea den Itziar Agirre Berriotxoa andrearen gain uztea. Honako egun hauetan:*

- *Azaroaren 26 eta 27an*

***Bigarrena.-*** *Ebazpen honen berri Udalbatzari ematea, lehenengo bileran.*

Ebazpena botoetara eramanda, aho batez berretsi da.

**9.- 2016ko azaroaren 29ko Alkatetzaren Ebazpena: berrestea.**

Azaroaren 29an emandako ebazpena irakurri da, honen testua honakoa izanik:

*Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 E.Dekretuaren 47.1 eta 2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Alkateordeek, euren izendapenaren arabera, Alkatea dituen betebehar guztietan ordezkatzen dute, hau ez dagoenean beste kasu batzuen artean. Ordezkapen hau ezin da aurrera eraman ez badago espreski eginda.*

*Hau guztia dela eta, eta aipatu azaroaren 28ko 2568/1986 E.Dekretuaren 44 artikuluaren arabera, honako honen bidez,*

***RESUELVO***

***Primero.-****Delegar las funciones de Alcaldía en la primer Teniente de Alcalde, Dña Itziar Agirre Berriotxoa durante mi ausencia en las fechas :*

- *26 y 27 de noviembre*

***Segundo****.- Dar cuenta de esta Resolución al Pleno en la primera sesión que éste celebre.*

Sometida la resolución a votación, la misma es ratificada por unanimidad

**9.- Resolución de Alcaldía 29 de noviembre 2016: ratificación**

Se da lectura a la resolución de Alcaldía dictada el 29 de noviembre pasado cuyo texto se transcribe a continuación:

*Conforme al art. 23.3 de la ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, y 47.1 y 2 del R.D. 2568/1986, de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, corresponde a los Tenientes de Alcalde sustituir en la totalidad de sus funciones y por el orden de su nombramiento al Alcalde en los casos de ausencia, entre otros., no pudiendo ser éstas asumidas sin delegación expresa.*

*En consecuencia, y visto lo dispuesto en el art. 44 del citado R.D.2568/1986, de 28 de noviembre, por el presente,*

Urretxuko udala

**_EBAZTEN DUT_**

***Lehena.-*** *Alkatearen funtzioak Bigarren Alkateordea den Igor Zubillaga Aguado jaunaren gain uztea kanpoan izateagatik azaroaren 30ean*

***Bigarrena.-*** *Ebazpen honen berri Udalbatzari ematea, lehenengo bileran*

Ebazpena botoetara eramanda, aho batez berretsi da.

Eta beste gairik izan gabe, alkate jaunak aldez aurretik gabonak zorionduz, amaiera eman zaio batzarrari gaueko bederatziak direnean, eta horren guztiaren akta jaso da, eta bildutako guztiek sinatu dute, fede-emaile naizen honekin batera

**_RESUELVO_**

***Primero.-****Delegar las funciones de Alcaldía en el segundo Teniente de Alcalde, Igor Zubillaga Aguado durante mi ausencia el día 30 de noviembre.*

***Segundo****.- Dar cuenta de esta Resolución al Pleno en la primera sesión que éste celebre.*

Sometida la resolución a votación, la misma es ratificada por unanimidad

Y no habiendo más asuntos que tratar, previa fecilitación de las navidades del sr. Alcalde, se da por finalizada la sesión a las veintiuna horas, de todo lo cual se extiende la presente Acta que firman conmigo todos los asistentes, y de lo que doy fe.